## KRISTAU ESKOLAK ETA AICEK GORENERA JO DUTE HAUR-HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO ETA LANBIDE-HEZIKETAKO TUTORETZA-PLUSA DESAGERTZEKO

Aurreko inforrietan jakinarazi genuen bezala, Kristau Eskolak eta AICEk gatazka kolektibo bat jarri zuten abian joan den ikasturtearen amaieran tutoretza-osagarria arautzen duen hitzarmenaren 65. artikulua aldatzeko, osagarri hori ez ordaintzeko H.H.ko 1. zikloan eta Lanbide Heziketan. Kristau Eskolak eta AICEk Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen 2017-2021eko Hitzarmen Kolektiboko Tutoretza Osagarriari buruzko 65. artikuluaren DEUSEZTAPEN PARTZIALA aitortzea eskatu zuten, Haur Hezkuntzako 2. zikloko, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko hezkuntza-mailetara mugatuz, edo, subsidiarioki, hitzarmen horren 65. artikuluaren GUZTIZKO DEUSEZTAPENA.

Azkenik, patronalek eragindako hainbat atzerapenen ondoren, **Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Epaimahaiak epaia eman zuen, Kristau Eskolaren eta AICEren asmoa ezetsiz**. Epaiak oso argi utzi zuen 65. artikulua osorik bete behar dela.

STEILASek uste zuen bezala, **patronalek Madrilgo Auzitegi Gorenera jo dute**, hitzarmenaren puntu horren aplikazioa atzeratzeko.

STEILASetik errekurtsoa ken dezatela eta hitzarmena bete dezatela eskatzen diegu KE eta AICE patronalei, tutoretza-plusa ordainduz 2017tik edozein mailatan tutore lana bete duten langile guztiei . Hala egin ezean, STEILASek bere baliabide guztiak erabiliko ditu tutoretza-osagarria haur-hezkuntzako lehen zikloan eta lanbide-heziketan ere ordain dadin, lortu arte!

## KRISTAU ESKOLA Y AICE RECURREN AL SUPREMO LA DESAPARICION DEL PLUS DE TUTORIA EN EL PRIMER CICLO DE INFANTIL Y FORMACION PROFESIONAL

Como ya informamos en anteriores inforriak Kristau Eskola y AICE pusieron en marcha a finales del curso pasado un conflicto colectivo para modificar el artículo 65 del convenio que regula el complemento de tutoría, para no pagar ese complemento en el primer ciclo de infantil y en FP. Kristau Eskola y AICE solicitaban la NULIDAD PARCIAL del artículo 65 del Convenio Colectivo de Centros de Enseñanza de iniciativa social de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2017-2021, referente al Complemento de Tutoría, limitando su aplicación a los niveles educativos de Infantil 2º ciclo, Primaria, ESO y Bachillerato; o, subsidiariamente, la NULIDAD TOTAL de dicho artículo 65 del Convenio.

Después de varios retrasos provocados por las patronales, la **Sala de lo Social del Tribunal Superior del País Vasco dictó sentencia, desestimando la pretensión de Kristau Eskola y AICE.** La sentencia dejaba muy claro que el artículo 65 debe cumplirse en su integridad.

Como ya nos temíamos en STEILAS, l**as Patronales han recurrido el asunto al Tribunal Supremo de Madrid** con el claro objetivo de retrasar la aplicación de ese punto del convenio.

STEILAS exige a las Patronales KE y AICE que retiren el recurso y que cumplan inmediatamente el convenio pagando el plus de tutoría a todas las personas que han ejercido esta función en cualquier nivel desde 2017. De no hacerlo, STEILAS seguirá poniendo todos sus medios para que el complemento de tutoría se pague también en el primer ciclo de infantil y en la formación profesional ¡hasta conseguirlo!

**Irakaskuntzan, STEILAS**